

NONDIK DATOZ EUSKAL HERRIRA?

Deskribapena: Christmas uharteko irudiak agertzen dira, paisaiak lehenengo, jendea ondoren eta karramarro gorriak azkenik alde guztietan.

Kike (offahotsa): Christmas uhartea Indiako ozeanoan dago, eta Australiaren menpe egon arren, bertako mila biztanleen ehuneko hirurogeita hamarrak jatorri txinatarra du. Baina gizakia, ez da bertan bizi den izaki bizidun bakarra; karramarro gorriek ere Christmas uhartean dute bizilekua eta ehun eta hogeita milioi omen dira. Urrian, beraien gordelekuak utzi eta hondartzara abiatzen dira ugaltzeko asmoz. Bidean aurkitzen dituzten oztopo guztiak gaindituz: errepideak, golf zelaiak, eskolak edota etxeak.

Deskribapena: Haur afrikarren imajinak agertzen dira jolasean eta ondoren errusiar bat bonboiak janez.

Kike (off ahotsa): Gizakiak ere era guztietako oztopoak gainditu izan ditu bere jaioterria utzi eta beste herrialde batzuetan bizitzeko. Hori bai, ez da gauza bera pateran etorritako afrikar txiro bat izatea edo hegazkinez iritsitako errusiar aberats bat izatea.

Deskribapena: Kikek Donostiako Kontxako hondartzan mapa mundia pintatzen du hondarretan makil baten laguntzarekin.

Kike: Euskal Herrian berrehun eta laurogeita bost mila etorkin inguru bizi dira. Biztanleriaren ehuneko zazpi koma hiru. Eta pertsona horiek mundu guztitik etorri dira. Euskal Autonomi Erkidegoan, esate baterako, berrogeita hemezortzi mila amerikar bizi dira; berrogeita bat mila europar, hogeita hamazazpi mila afrikar, hamabi mila asiar, ehun eta hogeita bat ozeaniar eta aberrik gabeko hogeita hamar pertsona. Baina utz ditzagun alde batera datu hotz horiek eta ezagutu dezagun jendea.